

JARDUERAK

Gure enpresaren jarduerak ahalbidetuko digute gure balio-proposamenaren eskaintza garatzea, bezero potentzialengana iristea, haiekin eraginkortasunez harremanetan jartzea eta diru-sarrerak lortzea. Horregatik, hiru jarduera motak bereiztea garrantzitsua da: Lehenengoa, ekoizpenean (produktuak diseinatzea, ekoiztea eta entregatzea) oinarritzen da; Bigarrena, arazoak konpontzea izango litzateke; Azkenekoa, plataformako edo sareko jarduerak kudeatzea (plataforma teknologikoak kudeatzea, mantentzea eta sustatzea) da.

Lehenago azaldu bezala gure produktuarekin, gure egunerokoan poltsikoetan eramaten ditugun txartel kopurua murriztea da, baita gure txartelak ordenatuagoak edukitzea eta horiek aurkitzeko arazorik ez izatea.

Ekoizpenari dagokionez, taldekideak izango gara diseinuaz arduratuko garenak, baita programazioaz ere. Beraz, ez dugu behar kanpoko enpresaren laguntzarik gure aplikazioa aurrera eramateko, ezta zenbat produktu kantitate egin behar ditugun jakitea ere. Izan ere, gure produktua aplikazio bat denez, aplikazioa programatua egotearekin nahikoa izango litzake. Diseinuari dagokionez, gure aplikazioaren diseinua sinplea izan behar da, aplikazioa erabilterraza izatea bainahidugu, horrexegatik nahiz eta anuntzioak jarriko ditugun, ez dugu anuntzioek pantailan espazio handi bat okupatzea nahi, erabiltzailea ez molestatzeko. Horretaz gain, feedback sistema bat izango dugu bezeroen interesak eta kexak entzun al izateko, sistema hori aplikazio barnean egongo dira, baina beraien feedbacka guri gmail bidez iritsiko zaigu, hala bezeroekin komunikatzeko kanal zuzen bat edukiz. Azkenik, gure aplikazioak premium eta doako bertsioak izango dituenek, bertsio

bakoitzak kolore ezberdin bat izango du aplikazio barruan, eta dohako bertsioa izan ezkerro, dagoeneko hiru txartel sartzean, ez dizu laugarren bat gehitzeko baimenik emango.

Plataforma eta sareko jarduerak kudeatzeari dagokionez, gu arduratuko gara gure aplikazioa funtzional edukitzea, izan ere, nahiz eta gure aplikazioa google play eta apple store bezalako dendetan jarri, aplikazioaren gestioa guk egingo beharko, dugu, aplikazioa aktualizatuz, denda barruan gure aplikazioaren orriak ondo funtzionatzen duela aseguratuz, eta tokatzen denean beharpenak jarritz. Horretaz gain gure feedback sistemari arreta jarri beharko diogu gure bezeroek dituzten iritziak eta kezak entzun eta ala aplikazioa hobetzeko, feedback sistemari arreta jartzeko, sistema horren bidez iritsitako iritziak, emailera iritsiko zaizkigu (nahiz eta bezeroek aplikaziotik bidaliko dituzten), eta gure marketing zuzendaria (Ibane Prieto) izango da email horiei arreta jartzeaz arduratuko dena.

Plataformari dagokionez, gure aplikazioa eskugarri izango dute gure bezeroek Apple Storen edo Play Storen. Bi aplikazio horiek ongi funtzionatzeaz ez gara gu arduratuko, aplikazio horien jabeak arduratu beharko dira, nahiz eta horien barruan aplikazioa egunean egoteaz, lehenago esan bezala gu arduratuko gara. Bestetik, gure aplikazioak funtziona dezan enpresa desberdinen laguntza behar dugu, beste enpresen txartelak baliatu beharko ditugu, haien txartelak ongi funtziona dezaten, beraien kolaborazioa beharko dugu hien txartelen funtzionamendua ezagutzeko.

Gure bezeroek aplikazioarekin izan dezaketen arazo bat Wifiaren erabilera izan daiteke. Hori errazteko gure aplikazio eskuratzeko Wifia beharrezkoa izango da, baina erabiltzerako momentuan ez. Hortaz, etxean deskargatu dezakegu aplikazioa eta kalean ez dugu arazorik izango gure aplikazioa erabili ahal izateko, hau da, gure txartelak erabili ahal izango ditugu.

Ondorioei, dagokionez, ekoizpen aldetik, aplikazioa ekoizteko erraza izatea espero dugu aplikazioa behin baino programatu beharko baitugu , horretaz gain aplikazioaren diseinuaz gu arduratuko gara eta sinplea eta erabilterraza izatea lortu nahi dugu, hala bezeroek gure produktuarekiko izango duten iritzia positiboagoa izango baita, izan ere ximpletasun eta eguneratua egoteak haien esperientzia hobetuko du. Plataformak eta sareko jarduerak kudeatzeari dagokionez , aplikazioa eguneratua izateaz eta feedback-az arduratu baino ez dugu egin beharko. Kanpoko enpresen laguntza handia ez dugu beharko, izan ere, beraien laguntza gure aplikazioa egongo den denda mantentzeko eta gure aplikazioan egongo diren txartelak nola funtzionatzen duten jakiteko baino ez dugu beraien laguntza beharko. Azkenik gure bezeroek izango dituzten arazoak aurrikusita aiei nola aurre egin pentsatzen hasi gara.